

# EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor  
Esteban Bravo  
atsegin dut   


## MARIBEL VAQUERO Beasain, 2023ko uztailaren 10ean

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
*El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.*

XVIII. mende bukaeran John Adams etorri zen Euskadira, gerora Estatu Batuetako presidentea izango zena. Eta zertara etorri zen Adams? Estatu Batuen sorrerarako eredu demokratiko baten bila zebilelako Europan. Eta, hara non, eta gure Foru gobernua erreferente ontzat hartu zuen. John Adamsek Euskal lurraldeetan zegoen autogobernua eredugarritzat hartu zuen, eta horrela jaso zuen idatzitako liburuan.

“La ventaja de Euskadi es su libertad. La libertad que le otorgan los Fueros, el Sistema Foral con el que se gobiernan los vascos”.

Sistema foral que es la base del Autogobierno vasco y que tenemos que defender:

- de los ataques directos de aquellos que, sin ningún disimulo, incluso recogiendo en su programa electoral plantean eliminar el autogobierno vasco, e incluso ilegalizarnos.
- de los ataques más sibilinos de aquellos que mediante diferentes proyectos legislativos nos plantean una uniformización con el resto del Estado, con leyes y proyectos recentralizadores. Que nos laminan y nos hacen retroceder en bienestar social. Contando en ocasiones con la inestimable ayuda de los que se denominan “independentistas”.

Adams ya lo dijo: lo que nos diferencia y lo que ha generado bienestar a nuestro Pueblo, a Euskadi, ha sido precisamente el mantenimiento de los fueros, que son la base de nuestro autogobierno.

No lo subestimemos, por tanto; no pensemos que da igual quién regula, quién planifica y gestiona nuestra educación, seguridad, transporte, sanidad, economía, vivienda... No es lo mismo.

Hoy somos el País que somos porque hemos defendido y desarrollado nuestras políticas públicas en virtud de nuestro autogobierno, gracias al cual, aunque no todo es perfecto, tenemos los mejores datos socio-económicos. No podemos permitir que sea cuestionado, ni minusvalorado.

Adamsen pasarte hau gogora ekarri dut, gure AUTOGOBERNUAREN eta instituzioen defentsa egitea zein garrantzitsua den gogorarazteko, batzuei ahaztu egiten zaie eta...

Horregatik EUSKADIREN AHOTSA entzun behar da Madrilén, gurearen defentsarako, gure herritarren ongizatea bermatzeko. Eta Euskadiren Ahotsa ozen entzuteko aukera bakarra EAJ da, EAJri botoa ematea da!!

Gaur goizean Errenterian izan gara, gure hizkuntzaren, euskararen inguruan PROGRAMAN ditugun proposamenak azaltzeko. Eta bertatik bertara ezagutu dugu

BADALAB. Gipuzkoako Foru Aldundiak "Etorkizuna Eraikiz" ekimenaren bidez beste eragileekin batera sortutako esperimentazio gune erreferentziala, euskararen biziberritzerako eta hizkuntz berdintasunerako sortutako laborategia. Bakarra European.

Instituzioetatik, elkartegintzarekin lankidetzan, gure hizkuntza, Euskara biziberritzeko lan eskerga egiten dugun bitartean, Estatuko botereek, kasu honetan VOXen helegite bat medio, Konstituzio Auzitegiak udalei bere barne-funtzionamenduan hizkuntzen erabilera arautzeko eskumena KENDU DIE.

Euzko Alderdi Jeltzaleak ozen dio, toki-erakundeek beren errealitate soziolinguistikoan oinarrituta, eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatuta, bere barne funtzionamendua arautzeko autonomia dute, eta betebeharra. Eusko Legebiltzarrak bi mila eta hamasei urtean gehiengo zabal batekin onartutako Legeak horrela dio eta ezin dugu onartu, kanpotik, gure instituzioek legez arautakoaren kontrako erasorik eta emandako pausuetan inolako atzerakadarik.

"ERASOEN AURREAN, EUSKARAREN LEHEN DEFENTSA IZANGO GARA MADRILEN"

Zuetako batzuk Lazkao-Beasain ibilbidea bizikletaz egin duzue eta bidean CAFetik pasa zarete... keinu txiki bat eginez garraio jasangarriari. Aldaketa klimatikoa gizarte gisa dugun erronka handienetakoa da, eta gure bizitzako esparru guztietan inplikazioak ditu, kontsumo eta bizi-ohiturak eraldatzera behartuko gaitu eta. Eta puntu horretan, garraioak eta beren azpiegiturak sekulako garrantzia dute. Garraio sektorea berotegi-efektuko gasen igorle nagusia baita.

EAJren programak ibilbide orri bat eta mugikortasun jasangarriko proposamen zehatzak jasotzen ditu:

- bai isurpen gutxiago dituzten ibilgailuak eskuratzeko eta bere erabilpena errazteko,
- baita garraioaren deskarbonizaziorantz aurrera egiteko apustu sendo bat egiteko.

Eta horretarako, besteak beste, beharrezkoa da gaur egun errepidez egiten den merkantzia- trafikoa zati bat trenbidera bideratzea. Hori da gure apustua.

Baina gai honi dagozkion erabaki guztiak ez dira hemen hartzen, batzuk Estatuan edota European hartzen dira. Horregatik talde sendo bat izan behar dugu Madrilen, zure ahotsa, gure ahotsa, Euskadiren ahotsa ozen entzun dadin!!

Eta gure ahotsa, ezinbestekoa izango da ere Beasain-Ordizia trenbide saihezbide berria bultzatzeko, eta Irun-Brinkola gertuko trenen geltokietan obrak amaitu daitezzen lortzeko, orain arte egin dugun bezala. Eta, zer esanik ez, Euskadiren ahotsa beharrezkoa izango dugu Aldiriko trenen eskuduntza transferitua izateko.

Alderdi sozialistak ez du emandako hitza eta egutegia bete. Hala ere, ez dugu amore ematen eta hasitako bidea amaituko dugu.

Beraz, badugu Programa, taldea ere bai, eta gure norabidea zein den argi dugu! Botoek posible egingo dute Euskadiren Ahotsa Madrilen entzutea; ahots zuzena, bitartekarik gabekoa. Eta horretarako aukera bakarra EAJ da! Aukera bakarra EAJri boto ematea da! Gora Euskadi Askatuta!!